


SARETIK ZURERA



ZURE DONAZIOA, BESTEEN ITXAROPENA

EGILEAK: Uxue Redondo Fernandez, Israel López Ruiz,
Yamina Chebicheb Benabbou eta Luz Marina Moreira González.



1. AURKEZPENA:

Gaur egungo gizartean, ohikoa da elkarteen beharrak eta dendetan sortzen diren produktu soberakinak elkarren ondotik igarotzea batak besteari erantzun bat eman gabe. Horixe da guk konpontzen dugun arazoa: soberan dauden produktuen (arropa eta elikagaiak) eta behar handiena duten pertsonen arteko lotura eraginkorra eta azkarra eskaintzen dugu. Gure proiektuak biltegia hutsik duten erakundeen eta soberakinak pilatzen dituzten marken arteko zubia egiten du, baliabideak alferrik galtzea saihestuz eta benetan behar dituzten familietara iritsiz.

Gure proiektuaren ideia eguneroko errealitatea behatzean sortu zen. Hainbat dendetan eta markatan produktu ugari geratzen dira soberan, iraungitzeaz daudenak edo logistika-arazoengatik saldu ezin direnak. Aldi berean, elkarteek baliabide urriak dituzte eta familiek zailtasunak dituzte oinarritzko produktuak lortzeko. Desoreka hori ikusita, galdera bat jaio zen: **zergatik ez dugu sistema azkar eta sinple bat sortzen soberakinak behar dituztenengana iristeko?**

Berezi egiten gaitu gure lan egiteko moduak. Kontaktatzeko modu azkarrak erabiltzen ditugu, hala nola, deiak, Gmail edo WhatsApp; markekin zuzenean harremanetan jartzeko eta beraien soberakinak koordinatzeko. Ondoren, eskuragarri dauden produktuak behar dituzten erakundeekin konektatzen ditugu, eskaintza eta eskaria modu errazean uztartuz. Azkenik, landa lan aktiboa egiten dugu produktuak jaso, sailkatu eta premia handiena duten pertsonen eskura eramateko. Metodo honek efizientzia, antolaketa eta erantzun azkarra bermatzen ditu.

Gure bezero nagusiak bi dira: alde batetik, sektore publikoa, bereziki udalak, eta bestetik, sektore pribatuko erakundeak eta elkarteak. Guztion artean, kolektibo behartsuenen zenbait behar modu koordinatuan betetzea da gure helburua, baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatuz eta gizartean eragin positiboa sortuz.

Zein puntutaraino utziko genituzke gure herriko baliabideak alferrik galtzen, behar handiena duten familiek euren oinarritzko beharrak asetzeko zailtasunak dituzten bitartean?



GASTEIZEKO DATU ERREALAK

Udalak urtean 11 milioi euro bideratzen ditu gizarte-laguntzetara eta premiazko laguntzetara, baliabide faltan dauden familien oinarrizko beharrei erantzuteko.

3.600 familia baino gehiago ari dira laguntza ekonomikoak jasotzen Gasteizen, udaleko beste prestazio batzuetatik aparte.

Kolektibo zaurgarriei dagokienez:

- 65 urtetik gorako 5.319 pertsona inguru daude menpekotasun egoeran edo arriskuan.
- 18 eta 64 urte bitarteko 12.344 pertsonak desgaitasun aitortua dute
- 7.849 pertsonak RGI (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta) jasotzen zuten azterketaren unean.

Gasteizen badaude familia eta pertsona ugari oinarrizko beharrak asetzeko laguntza behar dutenak.

- Egoera bereziki zaurgarrian daudenak hauek dira:
 - Adinekoak.
 - Desgaitasuna duten pertsonak.
 - Diru-sarrera baxuak dituzten familiak.

Aurreko guztiakerakusten du badagoela behar erreala, baina baita egitura eta prestutasuna ere elkarlanerako eta baliabideak modu eraginkorragoan banatzeko.



SARETIK ZURERA, ZURE DONAZIOA, BESTEEN ITXAROPENA

1.1. GUTAZ:

SARETIK ZURERA elkarteak lau pertsonen osaturiko talde txiki baina konprometitua da. Gure lanaren puntu garrantzitsuenak elkartasunean eta gizartearekiko inplikazioan oinarritzen da, eta bakoitzak bere indarrak eta gaitasunak ekartzen ditu proiektu honetara. Laurok ikuspegi bera partekatzen dugu: gure inguruko baliabideak alferrik galtzea saihestea eta soberan dauden produktuak behar gehien dituzten pertsonengana iristea.

Talde gisa, antolaketa zaindua, komunikazio bizkorra eta elkarlana dira gure lan egiteko modua. Laurok gure artean eginkizunak modu naturalean banatzen ditugu, prozesu osoa estaliz: kontaktuak, logistika, antolaketa eta banaketa. Horrela, lan koordinatu eta eraginkorra lortzen dugu, eta beharrezkoak diren zeregin guztiak modu arduratsuan eta elkarlanean burutzen ditugu. Gure ahalegin bateratuari esker, proiektua modu efizientearekin eta egoki antolatuta burutzen da.


Lau pertsona izan arren, gure konpromisoak eta ahalegin bateratuak eragin handia sortzen du. Talde txikia izateak abantaila bat ematen digu: erantzun azkarra, malgutasuna eta gertutasuna. Gure lana ez da soilik soberakinak mugitu eta banatzea; komunitate bat sortzea da, non baliabideak partekatu, berrerabili eta balio soziala sortzen duten.

Guretzat argi dago elkarlana eta pertsonen arteko laguntza direla aldaketa posible egiten dutenak. Horregatik, proiektu honek urrats txiki baina sendoak ematen ditu gizarte bidezkoago eta solidarioago baten alde.



SARETIK ZURERA,
ZURE DONAZIOA, BESTEEN ITXAROPENA

1.2. LOGOAREN ESANAHIA:



Ikusten denez, logoak pertsona bat dirudi, gure elkartean pertsonak direlako garrantzitsuena, baina ondo erreparatzen badiozu logoa "S" eta "Z" batek sortua da (elkartearen izenaren siglak). Logoa berdea dela ere aipatu behar da, behar duenari eman aurretik berrikusiko ditugun objektuak birziklatuak/bigarren eskukoak izango direlako, hau da, jasagarritasunarekin bat egiten dugula adierazteko.